

Kolonialismoa eta Toponimia

Txillardegi (*)

«ORERETA izenaren alde» (1981)
liburuaren hitzaurretik hartua.

Talde herrikoi batek «ORERETA» izen zaharra berreskuratu nahi du; eta arazo hauei buruzko ene iritzia eskatu. Eta leku-izenek osatzen duten toponimiaren garrantzia azpimarratzea pentsatu dut; herri baten zapalketaren neurri eta irudi izan daitezkeen aldetik.

Gauza ezaguna da -gauza normala ere bai- elkarren ondoan bizi diren hizkuntzen artean mailebuak gertatzea. Garbizale amorratuei hitz-truke etengabe honek amorru ematen badie ere, edozein gizartetan gertatzen da «osmosi» hori, elkarrenganako isuri hori alegia. Gaur bertan, eta euskal burruka-gizon ezagunei dagokielarik, “etarra” hitza erabiltzen du Madrilleko Telebistak berak, nahiz gaztelania hutsez ari izan; eta, alderantziz, bertsolariarik jatorrenak berak ere, “errondan ibili” esan dezake, erdaraz ari denean “de ronda” sekula erabili ez arren.

Mailebu horien kondaketa eta estatistika egiten bada, ordea, berehala ikus daiteke, baita no-

labait neurtu ere, mailebuok zen hizkuntzatatik zein hizkuntzatarara egiten diren: %80 eman dezagun, A hizkuntzatik B hizkuntzara; eta %20, beraz gutxi gora-behera, B hizkuntzatik A hizkuntzara. Kasu honetan, berehala uler daitekeenez, A mintzo den herria da **nagusi**, eta B mintzo dena herri **zapatua**. Estatistika horrek %95 eta %5 erakusten baditu, **are garbikiago agertuko da menpekotasuna**. Eta abar. Gaur egunean, esate baterako, edonork berehala ikus dezakeenez, euskarak hartzen ditu mailebuak ia-ia beti; eta oso gutxitan, aldiz, gaztelaniak (edo frantsesak) euskaratik hartzen.

Lekuak izendatzeko eskubidea

Baina indar-harreman izkutu hori, hizkuntzariaren artean ezin garbiago eta nabarmenagoa, **erabat biluzirik eta lotsagabeturik agertzen zaigu zapal dutako herrien toponimian**. Frantsesez esan izan denez, “on refuse d'abord le droit de nommer”: izendatzeko eskubidea ukatzen zaio

Oreretan euskaraz / Euskal Toponimia

zapaldutakoari. Edo, bestela esanda ere: izendatzeko eskubidea garaitu duenari dagokio.

Bide beretik jokatu dute denek okupatuak izan diren herrietan. Oso garbi dago hau gaurko Wales herrian (Gales-en, **Kumri**-herrian alegia). Eta horra hor bertako **Caerdydd**, ingelesez Cardiff bihurtua; bertako **Abertawe**, Swansea bihurtua; **Casnewydd-ar-Wyig**, Newport; **Aberfan**, Port-Talbot birbataiatua, eta abar, eta abar. Galestarrei ere, beste guztiei bezala, izendatzeko eskubidea ukatu baitzaie.

Euskal Herrian ere gertatua da horrelakorik, jakina.

Hizkuntzen arteko indar-harremanak

Aipatu ditugun arazo horietan guztietan gauza bat ageri da: itxuraz bederen hizkuntza batek **garaitzen** duela, eta besteak **galtzen**. Leku-izenetan gauza bera, itxuraz.

Baina horren gezurra salatu beharra dago.

Hizkuntza bat beste bati nagusitzen zaio-**nean**, ez baitzaio hizkuntza nagusitzen, hizkuntza hori **darabilen herria** baizik. Antzinako Galian ez zen latina nagusitu, **Erromako Armada** baizik; eta honekin etorri zen erromatar herria. Mexikon ez zen gaztelania nagusitu, nahuatl hizkuntzaren ginetik; baina bai **España**ko Armada bertako indar armatuei.

Izen-lekuen aldaketa, beraz, ez da inondik ere hizkuntza-arazo bat, hizkuntza horien mintzatzaile diren herrien arteko arazo bat baizik. Toponimi aldaketak, hitz batez, indar-oreka berri bat salatzen du beti. Eta **KOLONIALISMO**ari dagozkion kasuetan (barne edo kanpokoa izan), indar-harreman horien termometro gisa agertzen da.

Izendatzeko eskubidea nahi

Abertzaletasuna piztutzen den Herrietan, horretara, eta gaurko gure Euskal Herrian gauza bera, izendatzeko eskubidea eskatzen da gero eta bortizkiago. Izen-aldaketaren funtsaz herria konturatzen denean, sustrai bila abiatzen da: eta leku-izenetan, toponimian, arbasoek (eta **INPERIALISMOA** abiatu baino **lehenago**) hiriak eta herriak, mendiak eta ibaiak, aranak eta malkarrak, nola bataiatu zituzten jakiteko **gogo**



bia sortzen da. Jasan dituen mila lapurretako baten aurrean egon uste du herriak. Eta **benetako leku-izenak** berreskuratzeko joera agertzen da.

ORERETA izenaren aldeko joera, nahi abertzale horretan bilatu behar da.

Aurkako argudio nagusia hau izaten da: izen **ofiziala** aspaldidanik erabiltzen da. Eta historiari, urteek nahiago bada, eskubide eman dezakete azkenean.

Hots, aipatu ohi den «Historia» hori ez da bate-re «neutro» edo koloregabe izaten. **Ongi dakigu** gure herriaren kondaira ez dela, ia-ia, zapalkuntza etengabe baten kondaira baizik. Aspaldiko mendeetan, gaurko egunean bezalaxe, «kondaira» hori borrokan egiten zen; eta **irabazleek** kondatzen zuten behin eta berriz. Zapalkuntza hau oso kontutan hartu gabe, «historia» jotzeak, zapaltzaileen jokoa egitera eraman gaitzake, eta ez beste ezertara.

Toponimiaren historia eta **INPERIALISMOA**ren historia, horretara, berezi ezinak dira. Eta toponimia «politikagabea» egin nahi dutenek, zapalketa kontutan hartu gabe erabaki nahi dituzte toponimiaren arazoak. Hitz batez, bide hori hartzen dutenek **INPERIALISMOA**ren eta eskuindarren bidea baizik ez dute hartzen. ●